HAUR HIZKERA 01

Pupu eta papa

Jende aunitzek, batez ere irakaskuntzaren mundutik hurbilekoak, dio haurrei hitz egiten diegunean hitzak osorik esan behar dizkiegula, deformatu gabe, nolabait, bestela, haurrek hitzak oker ikasten omen dituzte eta ahalegin handia eskatzen omen du oker horiek zuzentzea. Erabat ados gaude horrekin. Beste gauza bat da, ordea, haur txikiei helduei bezala hitz egitea. **Hobe haur hizkeran egitea**.
Haur txikiak hizketan hastera doazenean zenbait hots etengabe errepikatzen dituzte eta beste batzuk, berriz, zailak dira haientzat. Horrela, gaztelaniaz ere, haurrak ez dira *padre* edo *madre* esanez hasten, *pa pa pa pa* edo *ma ma ma ma* baizik, errazagoa baita. Eta euskaraz beste hainbeste. Entzun dezagun bada aitak, haur txiki batekin duen solasaldia:

Oi, oi, oi, oi, oi, horiek dira mainak, horiek! Baina, zer duzu, ederren horrek, horrelako maina handiak egiteko? Zatoz, zatoz aupa aitatxorekin pixka batean. Zer egin diote, ordea, gure mutiko txintxoen honi, horren haserre egoteko, e, zer egin dizute zuri? Dena-dena txintxoa eta dena-dena maitea eta dena-dena aitatxorena zara zu eta, bai horixe! Ez, ez, aupa ere ez zaude konforme, bada, zer nahi duzu, mama pixka bat?
Oraintxe emanen dizu aitatxok mama goxo-goxoa. Oiii, zeinen mama goxoa emanen dion aitatxok Anderri... ea, tori mama, tori. Ez, bada, ez duzu mamarik nahi. Ea, bada, ea papa zatitxo bat nahi duzun... ea non den papa mutikoari emateko... ea non den, ea... hementxe, hementxe... tori papa, goxo-goxoa dago eta.
A, ez, paparik ere ez duzu nahi, bada. Ene! Zeinen haserre dagoen gure mutiko maiteena, gozatuko ote dugu, bada, gaur mutikotxo hau? Dena-dena txintxoa eta alaia zara zu beti eta, eta zer duzu gaur, ordea, ea, ea... koko pixka batekin probatuko dugu, bada... ea lasaitzen dugun txikitxo hau... kokorik ere ez duzu nahi? Baina, baina dena kokozalea zara zu eta!
Ea, ea, ixo politena, ixo, zer duzu ordea, pupua nonbait ere? Pupua ote du, bada, gure mutikoak? Non, ordea? Ea, ea... ireki ongi ahotxo hori, ea kikaren bat mugitu ote zaizun... bai horixe! Kika handi-handia atera nahian dabil hor eta! Kika handi horrek ematen dizu pupu, ederren horri? Ea, bada, ea... botika pixka bat emanen dizu aitatxok ea pupu hori sendatzen dizun... Ez egin maina gehiago maitea, aitatxorekin aupa zaude eta oo, oo, oo, o!

Haur hizkeran ideia berak behin eta berriz, modu batean eta bestean errepikatzeaz gain, onomatopeikoak diren hitzak erabiltzen ditugu gauzei deitzeko, hala nola gaurkoan entzun ditugunak:

Hiztegia

- mainak egin=negarrez egon
    - Oi, oi, oi, oi, oi, horiek dira mainak, horiek! Baina, zer duzu, ederren horrek, horrelako maina handiak egiteko?
- aupa egon=besoetan egon

- Zatoz, zatoz aupa aitatxorekin pixka batean.

- mama=ura
- Oiii, zeinen mama goxoa emanen dion aitatxok Anderri...

- papa=ogia
- Ea, bada, ea papa zatitxo bat nahi duzun...

- kokoa=gozokia, gaileta...
- ea, ea... koko pixka batekin probatuko dugu, bada... kokorik ere ez duzu nahi?

- kikak=hortz haginak
- Kika handi horrek ematen dizu pupu, ederren horri?

- pupua=mina
- botika pixka bat emanen dizu aitatxok ea pupu hori sendatzen dizun...

HAUR HIZKERA 02

Ñañan eta purrut

... Ene amatxo maitea, benetan zakartu zaigu gero gaur mutiko hau. Tira, tira, **apapa** joanen gara lehenbailehen ea lasaitzen zaren, bai, **pi-pisak** kendu, apain-apain jarri eta **apapa**! Eta zer ikusiko du mutikoak **apapan,** e, zer ikusiko duzu zuk **apapan**? **Niniak**, eta **pio-pioak**, eta **brrrrum-brrrrunak** eta, horiek denak ikusiko dituzu zuk **apapan**, bai horixe. Seaskan utziko zaitut piska batean, e, amatxok arropak ateratzeko mutikoa apain-apain jartzeko **apapa** joateko. Ez hasi ordea berriz **mainetan**, dena **mainontzia** zaude gaur, e, **dena-dena mainontzia**. Tori **tetea** , tori, berehalaxe hartuko zaitut eta. Ea, zatoz hona, amatxorekin **aupa**, ea nolako **pipisak** egin dituen **gure ederren honek**! Ene, hauek **pipis** handiak, jakina, **ttuku –ttuku** handi handiak hartzen dituzu eta, **pipisak** ere handi handiak egin behar. Aizu baina zer duzu ipurdi alde honetan, dena gorri gorri duzu eta, **pupua** du gure txikitxoak ipurdian? Ai, **kika** gaizto horiek, nolako lanak ematen dizkiguten, e! Baina ikusiko duzu orain, berehala jarriko dizu amatxok krema goxo-goxoa eta **papo pupu**.
Horra, zeinen gustura zauden ipurdia agerian, e! Eta zeinena da **tirrin** goxo hori, e, zeinena da? **Ñañan** eginen dizu amatxok,e, **dena dena ñañan eta papo tirrina mutikoak**. Bai ote? **Ñañan** eginen ote dizu amatxok tirrina? Ez horixe, nola eginen dizu **ñañan**, bada, mutikoarena da eta tirrina. Aizu lotsagabe, nork egin du **purrut** handia, e, nork egin du.
Aizu, baina... hori zen **purruta** hori. Zer eman dizute, bada, **ñañan** egiteko horrelako **purrut** handia egiteko? Tira, tira jantzi eginen gara eta goazen **apapa**. Aizu, aizu, amatxori ez zaio **tas tas** ematen, ikusiko duzu amatxok ematen badizu zuri, hemen ipurdian **tas, tas**. Gaiztotxo, dena gaiztatzen ari zara zu, e, hoberena izan zinen naski. Et, et, et, utzi nire ileei bakean, ez, ez, ez hori ez da egiten, e, amatxori ez zaio horrelakorik egiten gero.
Hala egin **apatx ttattak** jantzi behar ditugu eta. Ikusi duzu zer **ttatta** berri politak ekarri dizkizun aitatxok **apapa** joateko. Ea, **ttatu** hankatxoa **ttattu**, holaxe eta bestea ere bai, **ttaaattu**! Txalo mutikoari, txalo, ea, txalo txalo

eginen dugu?
Ea:

Txalo txalo txin
Hator etxera Mattin
Taloa zegok atarian
Bere aulkitxo nabarian
Purrustika, purrustika
Anderren muxarrean!!!

Haur hizkeran ideia berak behin eta berriz, modu batean eta bestean, errepikatzen direla esan genuen lehengoan ere. Eta honez gain haurrentzat errepikatzeko errazak diren silabak erabiliz osatutako hitzak erabiltzen ditugu beren ingurukoari deitzeko. Esate baterako gau entzun ditugunak:

Hiztegia

- apapa: etxetik kanpora
    - Tira, tira, **apapa** joanen gara lehenbailehen
- pi-pis: pisa
    - Ene, hauek **pipis** handiak
- nini: haur
- pio-pio: txoria
- brun-brun: ibilgailu motordunak
    - **Niniak**, eta **pio-pioak**, eta **brrrrum-brrrrunak** eta, horiek denak ikusten baitituzu zuk **apapan**
- tete: txupetea
- Tori **tetea** , tori
- ttuku ttuku: biberoia
    - hauek **pipis** handiak, jakina, **ttuku –ttuku** handi handiak hartzen dituzu eta
- papo: bukatu
    - berehala jarriko dizu amatxok krema goxo-goxoa eta **papo pupu**
- tirrin: zilborra
    - Eta zeinena da **tirrin** goxo hori, e, zeinena da?
- ñañan: jan, janaria, edaria...
- purrut: puzkerra
    - Zer eman dizute, bada, **ñañan** egiteko horrelako **purrut** handia egiteko?
- tas-tas: jo
    - Aizu, aizu, amatxori ez zaio **tas tas** ematen
- apatx egin: eseri
- ttattak: oinetakoak
    - Hala egin **apatx ttattak** jantzi behar ditugu eta
- ttattu: sartu
    - Ea, **ttatu** hankatxoa **ttattu**, holaxe

HAUR HIZKERA 03

Bis, bis eta xapi

Hala, **ttatto** hemendik, orain amatxok prestatu behar du eta **apapa** joateko. Goazen **tiki- taka tiki- taka** amatxoren logelaraino. Ai ene, zenbat gauza dagoen hemen mutikoak **pupu** hartzeko, ezta hala? Tira egin **apatx** lurrean, hori izanen da ziurrena eta. Ez hasi **mainetan**, e, **mainontzi** alaen hori, itsusi itsusia jartzen zara dena e! Amatxok ere **apain-apain** jarri beharko du bada **apapa** joateko. Ixo, ixo, begira, tori, tori, zeinen **pitxi** polita, e! Ea agoantatzen duzun…
Tira, zatoz **aupa** eta **egin apatx** gurditxoan, **apapa** goaz eta! Zeinen ongi ibiliko den mutikoa **apapan**… Parkera joanen gara eta han **niniak** eta **piopioak**, eta **auauak** eta **pitxitxiak** eta **kuakuak**… ikusiko ditugu, ezta hala?
Eta **pio-pioak** ere bai, bai horixe! Eta zer esanen diegu **pitxitxiei**, e, zer esanen diegu? **Xapi**, **xapi** hemendik **pitxitxi**, esanen diegu, bai? Eta, **bis, bis, bis, bis, pitxitxi**, etorri Anderrengana, etorri, **bis, bis, bis**. Eta **ñañan** emanen diogu **pitxitxiri**.
Aupa **potxolo** hori, zatoz hona, bai, bai, gizona, oraintxe eginen dugu **ttatto**, oraintxe, uhalak askatu beharko dizkizut, bada, aurrena, kontuz **pupu** hartu gabe, kontuz, hala, egin **ttatto** eta segi, baina poliki, gizona, poliki, **punpa** eginen duzu bestela eta, eta **pupu** hartuko duzu. Eta gero **mainak** egin behar berriz ere! Bai, bai, han daude bai **pitxitxiak** eta **auauak** eta **pio-pioak**, goazen, goazen, tira!
Eta orain, **pitxitxiak** eta **pio-pioak** eta **auauak** eta… ikusi bitartean **ñañan** eginen dugu eta haiei ere emanen diegu. Begira, begira zer **ñañan koxo koxoa** ekarri dion amatxok mutikoari. Eta **mama** ere bai, gero edateko. Ez, ez, orain **mamarik** ez dugu edan behar, **ñañan** egin behar dugu aurrena eta gero emanen dizu amatxok **mama**. E, Ander, begira, **pio-pioak** janen du zure **ñañan koxoa** gero, tori, tori, **pio-pioak** jan baino lehen. Horrelaxe, horrelaxe eginen zara zu mutiko handi-handia. Ea, ea, ea non den **pitxitxi**, deituaiozu, **bis, bis, bis**, etorri **pitxitxi**, etorri Anderrengana, begira nola egiten duen **ñañan** Anderrek.
Oi ene, ia dena dena **papo** egin dugu eta. Bi zati gehiago eta **papo** eginen du dena mutikoak. Bat eta bi eta **papo**! **Ñañan papo** egin eta emanen dizu amatxok **mama**, eta dena bukatutakoan **kuakuak** ikustera joanen gara, bai. Nola ibiltzen dira **kuakuak**, e, nola ibiltzen dira? **Plisti-plasta**, **plisti-plasta** ezta hala? Anderri ere gustatzen zaio **plisti-plasta** ibiltzea, jakina, gero eginen dugu guk ere **plisti-plasta**, etxera joaten garenean, e!. **Papo dena ñañan**, **papo**!! Eta orain tori **mama**, poliki, poliki, bota gabe eta dena dena busti gabe. Nahikoa edan duzu, ez duzu gehiagorik nahi? Tira, bada, **ttattu** eginen dugu bere lekuan. On egin, e, aizu. Hori korroskada bota du gure mutikoak, gustura geratuko zinen, ezta hala?

Haur hizkeran ideia berak behin eta berriz, modu batean eta bestean, errepikatzen direla ikusi duzue gaurkoan ere. Beste alde batetik, haurrentzat errepikatzeko errazak diren silabak erabiliz osatutako hitzak erabiltzen ditugula beren ingurukoari deitzeko ere badakigu. Animaliei deitzeko berriz, animalia horiek egiten dituzten azantzen onomatopeiak erabiltzen dira.

Hiztegia

- ttatto: jaitsi, salto egin.
    - Hala, **ttatto** hemendik, orain amatxok prestatu behar du eta **apapa** joateko.
- tiki- taka: oinez ibili
    - Goazen **tiki- taka tiki- taka** amatxoren logelaraino.
- apain-apain: dotore dotore, ongi prestatuta
    - Amatxok ere **apain-apain** jarri beharko du bada **apapa** joateko.
- Xapi, xapi hemendik: katuak uxatzeko edo aldentzeko erabiltzen da
    - **Xapi**, **xapi** hemendik **pitxitxi**, esanen diegu, bai?
- Plisti-plasta egin: uretan, putzutan ibiltzea, bainatzea
    - Anderri ere gustatzen zaio **plisti-plasta** ibiltzea, jakina, gero eginen dugu guk ere **plisti-plasta**, etxera joaten garenean, e!
- auauak: txakurrak
- pitxitxiak: katuak
- kuakuak: ahateak, oiloak
    - Parkera joanen gara eta han **niniak** eta **pio-pioak**, eta **auauak** eta **pitxitxiak** eta **kuakuak**… ikusiko ditugu, ezta hala?
- punpa egin:erori
    - poliki, gizona, poliki, **punpa** eginen duzu bestela eta
- koxo-koxoa: goxo-goxoa
    - Begira, begira zer **ñañan koxo-koxoa** ekarri dion amatxok mutikoari.
- bis, bis, bis, bis, pitxitxi: katuak hurbilarazteko hotsa
    - Ea, ea, ea non den **pitxitxi**, deituaiozu, **bis, bis, bis**, etorri **pitxitxi**, etorri Anderrengana.